

SENIOR IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN EGONALDIAK ATZERRIKO ZENTROETAN – SALVADOR MADARIAGA PROGRAMA 2017 (HKKM)

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak deia egin du 400 laguntza emateko, xedea izanik irakasle eta ikertzaileek egonaldiak egitea goi mailako hezkuntzako eta ikerketako atzerriko zentroetan.

Senior edo Madariaga motako laguntza (A mota):

Mota honetako laguntza eskura dezakete unibertsitateko irakasle eta ikertzaile esperientziadunek, ibilbide profesional egiaztatua daukatenean.

Mota honetakoak dira "Salvador Madariaga" egonaldiak, eta, hain zuzen ere, helburu daukate irakasle eta ikertzaileek ezagutza eguneratzea Florentziako Unibertsitate Institutu Europarrean; arloak: zuzenbidea, ekonomia, historia, politika zientziak eta soziologia.

EEBBetan egonaldiak egiteko eskaerak egiten dituzten hautagaiak programa orokorraren eta Fulbright programaren artean aukeratu ahalko dute. Modalitate honetan 70 Fulbright onuradun egongo dira gehienez. Informazio gehiagorako deialdiaren 3. oinarria kontsultatzea gomendatzen da.

Laguntzen ezaugarriak eta iraupena:

Egonaldirako, irakasle edo ikertzaileak aldatu egin beharko du jardun akademikoko atxikipen zentroa, bai eta ohiko bizilekua ere. Salbuespena izango dira %66ko edo gorako ezgaitasun maila daukaten hautagaiak. Izan ere, horrelakoetan ez da nahitaezkoa izango atzerrira joatea eta zentroa Espainiako Estatutukoa izan daiteke; hala ere, aldatu egin beharko dute ohiko bizilekua.

Egonaldiaren iraupena 3 hilabetetik 6 hilabetera bitartekoa izango da: egonaldia jarrian egin behar da atzerriko zentroan jardun akademikoa eta zientifikoa dagoen aldiaren barruan.

Egonaldiak 2017ko uztailaren 1etik 2018ko irialaren 30era bitartean egin behar dira.

Egonaldia egiteko aukera daitekeen zentroa:

Atzerriko zentroak izango dira (aparteko kasuetan Espainiakoak izan daitezke), eta onuradunek bertan egingo dute proiektua egonaldiak dirauen bitartean. Egonaldietarako zentroak izan daitezke unibertsitateak eta ikerketako eginkizunak esleituta dituzten zentroak, baina, betiere, proiektuaren eremuan izen handia izan behar dute irakaskuntzan eta ikerketan.

Onuradunak:

Honakoak dira baldintzak:

- a. **Doktore titulua:** Doktore titulua eskuratuta izatea 2006ko urtarrilaren 1a baino lehen.

OHARRA: Karrerako funtzionarioek, **BETI** egin behar dute eskaria mota honetako laguntzarako, berdin dio noiz lortutakoa den doktore titulua.

- b. **UPV/EHUrekin funtzionario lotura izatea edo lan kontratua:** Karrerako funtzionarioa izatea, CSICeko ikertzaile izatea edo behin betiko lan kontratua izatea, betiere, horretarako nahitaezkoa izan bada doktore titulua izatea. Horrez gain, jardunean egon behar da arduraldi osoan. Eskari egileak baldintza hori bete behar du eskaria egiten duenetik egonaldia bukatu arte.
- c. **Egonaldiak atzerrian:** Azken 4 urteotan atzerrian egonldirik egin ez izana, guztira 6 hilabetetik gora. Kontuan hartuko dira doktoregoa egin ondoren atzerrian egin diren hilabetetik gorako egonaldi guztiak, nahiz eta egonldirako laguntzarik, kontraturik edo antzekorik izan zen.
- d. **Atzerriko herrialdea:** Herrialdea ezin izango da izan onuradunaren herritartasunarekin bat etorri; salbuespena dira: egoitza legala Espainian izatea eta gutxien dela 2 urtez izatea lortura iraunkorra UPV/EHUrekin.

OHARRA: UPV/EHUK **ez du** balioztatuko eskaria ez baldin baditu betetzen baldintza guztiak.

Eskariak egiteko epea:

2017ko urtarrilaren 16tik otsailaren 3ra arte, 14:00etan.

Eskariak egiteko prozedura:

Eskaria lotura honen bidez egin behar dira:

<https://sede.educacion.gob.es/tramite/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=874>

Aplikazioan dauden formulario guztiak bete behar dira eskaria baieztatu aurretik, formulario horietan **ezin izango baita zuzenketarik egin**: Eskaria behin aurkeztuta, ez da eperik eongo zuzenketarik egiteko.

Horrez gain, honako agiriak aurkeztu behar dira:

- a. Atzerriko zentroaren gutuna, adierazten duena eskari egilearen egonaldia onartu eta ontzat ematen duela.
- b. Doktore tituluaren fotokopia, edo, titulua eskuratzeko eskariaren ziurtagiria.
- c. Egingo den proiektuaren memoria, eredu honi jarraituz egina:
<http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/dms/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/998537/ficha/998537-2017/Memoria-del-proyecto-proext.docx>

OHARRA: UPV/EHU**n** bete beharreko prozedura:

UPV/EHUko langileek, eskaria egitean, convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar dute dokumentazio guztia (eskari orria, atzerriko zentroaren gutuna, doktore titulua eta memoria); horrez gain, **agiri bat erantsi beharko dute egiaztatzeko hasi dituztela izapideak unibertsitatean lanpostutik aldentzeko baimenak eskuratzeko.**

MECDn argibideetarako:
programa.movilidad@mecd.es

UPV/EHU:
E-mail: convocatorias.dgi@ehu.es
Tel.: 94 601 80 08

Informazio zabalagoa:
[http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-
mecd/catalogo/educacion/profesorado/profesorado-universitario/becas-
ayudas/movilidad/salvador-madariaga.html](http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/educacion/profesorado/profesorado-universitario/becas-ayudas/movilidad/salvador-madariaga.html)